



Bezero motak

Dokumentu honetan bezero segmentuari buruz hitz egingo dugu. Bezero motak azalduko ditugu. Horretaz aparte, gure ingurune espezifikoak aipatuko dugu eta horren barruan, konpetentzia, lan merkatua eta finantza erakundeak zeintzuk diren adieraziko ditugu.

BEZERO motak: Gure bezeroak mota askotakoak izango dira; ala ere, zerbitzu desberdinak emanaz, bezeroen desberdin asko lortu ditzazkegu.

- **Diskofesta zerbitzua:** Normalean gazteak edukiko ditugu bezerotzat, baina beste motako kontzertuak eskainiz, adin desberdineko bezeroak lortuko ditugu.
- **Sargardotegi:** Bezeroak oso desberdinak izan daitezke; hala nola, umeak, gurasoak eta aiton-amonak ere.
- **Erakusketa:** Erakusketa edo zerbitzu motaren arabera bezero mota bat edo beste izango ditugu. Erakusketa arteari buruz baldin bada, seguraski bezeroak artearekin zerikusia dutenak izango dira. Bestalde, erakusketa pailazioei edo pertsonai barregarriei buruz bada, bezero gehiengoak ume txikiak eta haien gurasoak izango dira.

Ingurune espezifikoak

Gure bezero motak aztertu ondoren, ingurune espezifikoak ikasi dugu eta horrela izango litzateke:

- KONPETENTZIA

Gure konpetentzia gure zerbitzu berak eskaintzen dituzten enpresak izango dira, eta horien artean, gainontzeko sagardotegiak, diskotekak eta ekitaldiak antolatzen dituzten guneak sartzen dira. Konpetentzia horiek bezeroei eskaintza erakargarria egiteko lehiatuko dira, prezioak, kalitatea, eta bezeroarentzako esperientzia kontuan hartuta. Sagardotegiek, esaterako, tradizioz lotutako esperientzia eta otorduak



eskaini ditzakete, eta diskotekek musika eta giroaren bidez bezeroak erakartzeko ahalmena izango dute.

- **LAN MERKATUA:** Gure enpresa antolatzeko langile desberdinak beharko ditugu. Horretarako, lan merkatura joan beharko gara eta langile koalifikatuak kontratatatu beharko ditugu. Gure enpresa zerbitzu desberdinak eskaintzen ditu, horregatik, langile asko prestakuntza egokiarekin beharko dugu. Horretaz aparte, jende gazteentzako lanpostuak eskainiko ditugu; batez ere, enpresaren inguruan bizitzen den jendeari.
- **FINANTZA ERAKUNDEAK:** Gure finantza erakundea bankua izango da. Guk bankuari eskatuko genihoke dirua gure zerbitzua ireki ahal ezateko.